

Larunbat gaua AEBetako Florida estatuko Orlando hirian. Herri-
tar ugari parrandan,
ondo pasatzen. Goi-
zaldeko ordu bietan,
Euskal Herrian goizeko zortziak
zirela, afganiar jatorriko Omar
Mateen gazte estatubatuar-
rak, arazorik gabe erositako fusila
eskuetan zuela Pulse diskoteka-
ra sartu ostean, bertan zeudenei
tiro egin zien, tragedia ikaraga-
rria eraginez: 49 hildako eta 53
zauritu. Eraso egin aurretik
ISIS Estatu Islamikoarekin bat
egiten zuela esan omen zuen 29
urteko gazteak. Gainera, afga-
niar jatorrikoa zenez, lehen or-
duetan bazirudien Asiako he-

tuliakideek erasoaren izaera ho-
mofobia ukatu eta «gizakien
aurkako atentatu» moduan
behin eta berriz aurkezten zute-
nez, berak platotik alde egitea
erabaki zuen. Honela esplikatu
zuen bere erabakia artikulu ba-
tean: «Komunitate juduaren
aurkako gorrotoagatik ezaguna
den terrorista bat sinagoga bate-
ra sartuko balitz eta 50 judu hil-
ko balitu, arrazoi osoz esango
genuke eraso terrorista eta anti-
semita bat zela. Eta ondoren, te-
lebista kateren batean, judu ba-
tek gaiari buruz aritzean hitz
horiek erabiliko balitu, lotsatu
gingo ginateke norbaitek kon-
tra egitean. Are gehiago, garrasi-
ka kontra eginez gero. Horixe

gertatu zen Sky News katean, gi-
zon gay bat LGBT komunitatea-
ren aurkako sarraskiari buruz
hitz egiten ari zenean». Britai-
niar ekintzaileak erantsi du Ma-
teenek jendea ondo pasatzen ari
zen lokal asko zituela Orlandon
bertan eraso egiteko, baina
«LGBT klub bat aukeratu zuen.
Homofobia eta terrorismo ekin-
tza bat izan zen, aldi berean. Ez
da nahikoa indarkeria gaitzes-
tea: zer eta zergatik gertatu zen
ulertu behar dugu».

HOMOSEXUAL MUSULMANAK
Orlandoko sarraski izugarriak
LGBT komunitatearen elkarta-
sun mobilizazioak eta protestal-
diak eragin ditu mundu osoan.

Eta beraien mezuak hedabide
askok jaso dituzte. Frantses Es-
tatuko “Liberation” egunkariak
elkarrizketa egin zuen Ludovic-
Mohamed Zahed HM2F Fran-
tziako Homosexual Musulma-
nen elkarteko sortzailearekin.
Izenburuak ideia nagusia labur-
biltzen du: «Faxismo guztiek,
eta Estatu Islamikoa horietako
bat da, gutxiengo sexualen aur-
kako jazarpena egiten dute».
Estatu Islamikoaren izaera fa-
xistarekin lotzen du homose-
xualen aurkako jarrera, ez Abu
Bakr al-Baghdadi ISISeko «kali-
faren» jarraitzaileen erlijioare-
kin. «Erlijio homofobia da isla-
ma?», galdetu zioten. «Profetak
mukhannathun-ak –emakume-

{ analisis } Jose Angel Oria

Orlandoko astindua

rrialdeko gatazkarekin lotutako
erasoa izan zitekeela. GARA
egunkariko erredakzioan ere
eguneko pauta aldatu behar
izan genuen, hasiera batean tali-
banen agiri baten inguruko in-
formazioa sartzeko asmoa bai-
kenuen, eta Orlandoko erasoak
gatazka harekin zerikusirik izan
zezakeelakoan, talibanen meha-
txuak beste baterako uztea era-
baki baikenuen.

HASERRETU ETA PLATOA UTZI
Pulse diskotekako erabiltzaile
gehienak LGBT komunitateko
kideak ziren, hau da, lesbiana,
gay, transexual eta bisexualak.
Aldiz, lehen ordu haietan ia
inork ez zuen esaten eraso ho-
mofobia izan zenik. Owen Jones
britainiar ekintzaileak nabar-
mendu du “The New York Ti-
mes” egunkariak berak atenta-
tuaren inguruan eskaini zuen
lehen informazioan ez zuela ai-
patu ere egin lokala homose-
xualek erabiltzen zutenik.
Owen Jones Sky News telebis-
ta katera deitu zuten, tertulia
batean esku har zezan. Beste ter-

Orlando hiriko Pulse
diskotekaren aurkako erasoak
49 hildako eta 53 zauritu
eragin zituen duela bi aste.
LGBT komunitateak erabiltzen
zuen lokalaren aurkako
erasoari leku askotan ez zaio
«homofobo» deitu ordea,
bazter guztietako
ekintzaileen haserrea
eraginez.

ei atxiki ohi zaizkien forma edo
keinuak dituzten gizonezkoak-
baben zituela diote *hadith*
askok –Mahomak eta bere la-
guntzaileek esan eta egindako-
en berri ematen duten kondai-
rak-. Pertsona horiek hartzen
zituen, gaur egun homofobia
esaten diogun fenomenotik ba-
besten zituen. Bere inguruko ba-
tzuek hil egin nahi zituzten gi-
zonekin harreman sexualak
izateagatik, emakumeek bezala
janzteagatik edo eskuetan *jenna*
emateagatik».
Elkarrizketa horretan Zahedek
eransten du Koran musulma-
nen liburu sakratuak ez duela
aipatu ere egiten homosexuali-
tatea. Hala ere, onartzen du gaur
egun homosexual izaera onar-
tzea zailagoa izaten dela herrial-
de musulmanetan, baina espli-
katzen du hori ez dela gertatzen
Mahomak edo kalifek aginduta-
koaren eraginez: «Mende asko-
tan kalifa otomandarrek homo-
erotismoa egiten zuten eta
otomandarrek izan zuten azke-
netako sultan bat bisexuala zen.
Europako XIX. mendeko olerka-

ri handiak Maroko eta Tunisia-
ra joaten ziren beren homose-
xualitatea bizitzera, han posi-
ble baitzen, hemen ezinezkoa
zen bitartean. 1750 arte Parisko
Udaletxe plazan homosexualei
su ematen zieten».

Edonola ere, Frantziako Ho-
mosexual Musulmanen elkar-
teko sortzaileak Orlandoko
izugarrikeriaren alde positibo
bat ere ikusten du: «Musulma-
nak behartuko ditu ISISen isla-
maren eta argien islamaren ar-
tean aukera egitera».

ISIS ETA TURKIA

Aukera hori egina dute ISIS
erakundeko jihadistiek. Esate-
rako, joan den asteartean Tur-
kiako Poliziak atxilotu zituen
hiru gizonak: bat Turkiakoa da,
eta beste biak Errusiako Dages-
tangoak. Ankarak eman duen
bertsioaren arabera, pertsona
transexualen aurkako eraso
bat prestatzen ari ziren.

Turkian homosexualitatea
ez da delitu, baina oso gizarte
homofobia da oraindik eta az-
ken urteotan atzera egiten ari

dela esan daiteke, Istanbul hi-
riak Harrotasunaren Desfile
jendetsuak hartu izan baititu
2003az geroztik, baina azken
urteotan antolatuta ezinik gera-
tu izan baitira.

Ankarak atxilotutako bi jiha-
dista Errusiako Dagestangoak
ziren. Vladimir Putinen her-
rialdean homofobia aurrera
egiten ari dela kontatu izan du-
gu GAUR8n bertan, orain urte
batzuk. 2013an sinatu zuen
errusiar presidenteak «propa-
ganda homosexuala» debeka-
tzen duen legea, eskuin mutu-
rreko homofoboiei erasoan
ateak zabalduz. Errusiako LGBT
komunitatea ere astindu du
Orlandoko sarraski izugarriak.
Kevin Rothrock izeneko erabil-
tzaileak Globalvoices.org web-
gunean idatzi duenez, «Erru-
siako gayen aurkako indarkeria
indartzen ari den momentuan,
geure kalteberatasuna ekarri
digu gogora erasoak».

Elena Kostitutxenko kazeta-
ria LGBT komunitatearen esku-
bideen defentsan nabarmendu
izan da. Oso garesti ordaindu



du homosexualen eskubideak
babestu izana: askotan atxilo-
tu izan dute. Jipoitu ere egin
izan dute. Orlandoko eraso-
aren ondoren, bi testu eman zi-
tuen argitara Facebooken.


EKINTZAILEAREN AMA, KEZKATUTA

Lehenean kontatzen du amare-
kin zela Floridako atentatua-
ren berri izan zuenean, eta
amaren erreakzioaren berri

Goiko irudian, Orlandoko
erasoan hildako gazte
baten gurasoak negarrez,
hilaren 13an.
Brendan SMIALOWSKI | AFP

Behekoan, Parisko Eiffel
dorrea ortzadarraren
koloreekin apainduta,
eraso homofobia
gaitzesteko.
Ludovic MARIN | AFP

emanez, Errusiako homose-
xualek egunero bizi duten ego-
era azaltzen zuen. Herritar as-
kok erasoari homofobo izaera
ukatzen ziotela ikusita, biga-
rena idatzi zuen: «'Hildakoen
joera sexualak ez du garrantzi-
rik' eta antzekoak idatzi dituz-
tenek, erailketa horien kausari
begiak ixten dizkiote. Eta kau-
sa hori homofobia da. Egia
esan, 'homofobia' hitza ez zait
gustatzen, oso abstraktua bai-
ta. Baina gutxienez azaltzen du
zergatik azken bi urteotan nire
hemeretzi lagunek erasoak ja-
san dituzten; zergatik bi lagun
bortxatu zituzten eta beste bi,
erail. Eta zer arrazoiengatik
nik ezagutzen nituen hogeitik
gora pertsona Errusia uztera
behartuta egon diren. Hau
guztia nire lagunen zirkuluan
gertatu da, hain handia ez den
zirkulu batean alegia. Gure
kontrako legeak onartzen di-
tuzte, berdinak izango ez bagi-
na bezala tratatzen gaituzte eta
askotan esaten digute gutxia-
go balio dugula, ez dugu ez-
kontzeko eskubiderik, ezta gu-



re bikotearekin batera geure
umeak zaintzeko eskubiderik
ere. Espetxean edo erietxean
gaudela, ez dugu bisitak jasot-
zeko eskubiderik. Azken hiru
urteotan, talde neonazi ba-
tzuek LGBT komunitateko per-
sonak jarri dituzte jomugan.
Eta telebistak gorroto eta bel-
dur giro hori puztu egiten du».

MOSKUKO ATXILOTUAK

Kazetariak deskribatutako ego-
era horren ondoan badago bes-
te Errusia bat, ordea. Errusia
ofizialak (Putin presidenteak
berak) berehala Etxe Zurira
deitu zuen bere dolumina
adierazteko eta Errusiako Atze-
rri Ministerioak adierazpen
homofoboak egiten dituzten
herritarrak salatu zituen. Aldi
berean, dozenaka errusiar joan
ziren AEBek Moskun duten en-
baxadaraino Orlandon hilda-
koen alde lore eskaintza egite-
ra. Baina Mosku hiriburuko
Poliziak horietako bi atxilotu
egin zituen, "Maitasunak ira-
bazten du" zioen kartela zabal-
tzeagatik. Non geratzen da



gabe uzten baititu. Larrialdiak eragin zuen debeku hori behin-behinekoz altxatzea. Gizarteak martiriak behar al ditu oraindik mugak jasotzeko? Gizarte-ekuaizio horretan, homofobiak oraindik duen tolerantzia kasu batzuetan ospakizunera iristen da. Gorrotoa –transfobia, lesbofobia, islamofobia, homofobia edo beste izenen bat emanda ere– desbideratze lotsagarri moduan borrokatzen ez dugun bitartean, guztiok gara Mateen».

Ezkertiarrak zein eskuindarrak astindu ditu Orlandoko sarraskiak. Bogota Kolonbiako hiriburuko Lourdes parkean egindako erasoaren aurka, protestaldian Cecilia Alvarez Correa Merkataritza ministro ohiak esku hartu zuen. Hain ezaguna izanda, zergatik nahastu ote zen manifestari anonimoekin galdetu zioten: «Gauzei datozen bezala aurre egin behar zaiela uste dudalako. Lourdes parkean zeuden gazteei beldurrik

Obamari telefonoz bere dolu-mina azaldu zion agintariaren sinesgarritasuna?

Liliana Viola ekintzaileak Argentinako “Pagina 12” egunkarian argitaratutako artikuluko baten izenburuak Orlandoko sarraskiaren beste alde bat nabarmentzen du: “Je suis latino, negro y puto”. Izan ere, Mateenen erasoaren ondoren ia ez da inon ikusi “Je suis Charlie” eta tankerako esaldirik (orrialde honetako Marokoko irudian “We are Orlando” irakurtzen bada ere) kartel eta pankartetan idatzita: «Kontzientzia zintzoaren adierazpenen katalogoan oraindik ez dute ‘Ni ere puto bat naiz’ esaldia sartu».

«GUZTIOK GARA MATEEN»

«Bitartean –eransten du egile argentinarrak–, lehen egunean, zauritu zituzten pertsonen lagun homosexualek odola emateko aukerarik ez zuten izan, legeak ezarritako kutsatu-presuntzioak elkartasuna adierazteko aukera hori

Goiko argazkian, Rabat Marokoko hiriburuan hilaren 15ean Orlandoko erasoaren inguruan egin zen ekitaldia.
Fadel SENNA | AFP

Behekoan, Indiako ekintzaile bat ekainaren 16an eraso homofoboak gaitzesteko Mumbai hirian egindako mobilizazioan.
Punit PARANJPE | AFP



ez izateko adierazteko aukera ezin hobea zen, beraiek benetan direna izan daitezela esateko, sentitzen dutena adieraz dezaten, eta nor maite duten garbi esan dezaten, beldurrak ezin baitu gizarte osoa mende hartu».

BAZTERKETA LEGEZKO EGIN

Eskuineko gobernuetan esku hartutako emakumeak uste du Kolonbiaren kasuan, orain arte lortu denari eutsi behar zaiola, atzera egiteko tentazioaren aurrean. Carlos Gaviria zena Auzitegi Konstituzionalaren buru izan zen garaian –1996tik 2001era– LGBT komunitatearen maki-na bat eskubide bermatu ziren. «Tristura eragiten du Estatuaren goi kargu batzuek oraindik epaileen erabakiak bete nahi ez izatea, homosexualitatea bekatu, gaixotasun edo delitu dela dioen ideia zabaltzen ibiltzea. Eta okerragoa dena, bazterketa berriz lege-zko egin nahian sinadurak biltzen ibiltzea».